

**Gipuzkoako Foru Aldundiko
Euskara Zuzendaritza Nagusiaren
HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA
2012-2015**





Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. Prozesuaren helburuak	4
3. Prozesuaren urratsak	5
3.1. BARNE-ANALISIA	5
3.2. KANPO-ANALISIA.....	6
3.3. BILDUTAKO INFORMAZIOAREN XEDEA	9
4. 2008-2011 Plan Estrategikoaren balorazioa.....	11
4.1. SARRERA.....	11
4.2. BARNE-ERAGILEEN BALORAZIOA	13
4.3. KANPO-ERAGILEEN BALORAZIOA.....	14
4.4. HAUSNARKETA ESTRATEGIKOAREN LANTALDEAREN BALORAZIOA	17
5. Egungo egoeraren diagnostikoa.....	18
5.1. SARRERA.....	18
5.2. BARNE-ERAGILEEN AMIA AZTERKETA.....	18
5.3. KANPO-ERAGILEEN AMIA AZTERKETA	21
6. EZNren zeregin eta erronka nagusiak.....	23
6.1. BARNE-ERAGILEEN AZTERKETA.....	23
6.2. KANPO-ERAGILEEN AZTERKETA	24
7. 2011-2015 epealdirako Plan Estrategikoa	29
8. Helburuen lehentasuna	45
9. Etorkizunari begira	48
9.1. ELHUYAR AHOHKULARITZAREN BALORAZIOA	48
9.2. PARTE HARTU DUTENEN BALORAZIOA	50
Helburu, neurri eta adierazleen zuhaitza	51





1. Sarrera


Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusiak 2008an abiatu zuen **Hausnarketa Estrategikoa sistematizatzeko jardura**.

Lehenik, EFQM ereduan oinarritutako auto-ebaluazioa egin zuen 2008aren hasieran. Auto-ebaluazio horren emaitzen argitan, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren hausnarketa estrategikoaren prozesuari ekitea erabaki zuen.

Horrela, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren **Hausnarketa Estrategikoa 2008-2011** landu zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2007-2011 Kudeaketa Plan Estrategikoari loturik.

Azken lau urte hauetan, beraz, hausnarketa estrategikoaren **garapena, jarraipena eta ebaluazioa** egin du Euskara Zuzendaritza Nagusiak eta orain, legegintzaldi berriarekin, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren hobekuntza-bidea eta esparruak sendotzeko, **Hausnarketa Estrategikoa berritu** nahi izan du Zuzendaritzak, legealdiak hartzen duen **2011-2015 aldirako**.

Txosten honetan hausnarketa horren emaitzak jaso ditugu.





2. Prozesuaren helburuak

Prozesuaren helburu nagusia ondorengoia izan da:

“Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskara Zuzendaritza nagusiaren 2012-2015 aldirako hobekuntza-bidea eta esparruak sendotzeko tresna izango den plangintza lantzea”

Helburu zehatzak

- Eguno egoeraren **diagnostikoa egitea**, aurreko fasean, 2008-2011 bitartean garatutako hausnarketa estrategikoaren orientabidea, prozedurak, edukiak eta emaitzak aintzat hartuta.
- **Datorren legegintzaldirako helburu estrategikoak eta ekintzak definitzea**, hausnarketa estrategiko berriaren oinarri, jarraibide eta orientabideak kontuan hartuz.

Zeharkako helburuak

- **Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskara Zuzendaritza Nagusia osatzen dutenek geldialdia egitea**, egunerokoa une batez alde batera utzi eta azken urteetan egindako lanaren inguruan hausnartzeko eta baita epe ertaineko helburu eta lanak irudikatzeko ere, beti ere, ikuspegi estrategikoarekin.
- **Lantalde berria osatzen duten kideen ikuspegiak adostu eta bateratzea**. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundian aldaketa politikoa gertatu den neurrian, Euskara Zuzendaritza Nagusia osatzen duten ordezkari politikoak ere aldatu egin dira eta legegintzaldi hasieran Zuzendaritza osatzen duten arduradun politiko eta teknikoek azken urteetan egindakoaz eta aurrera begira egin beharrekoek elkarrekin hausnartzeak ikuspegiak ezagutu, partekatu eta bateratzeko aukera emango du.
- Euskara Zuzendaritza Nagusiak aurrez identifikatuta dituen **Interes-taldeetako eragileek parte-hartzea eta horien eta ekarpenak jasotzea**, betiere, horien ikuspegia eta iritzia plangintzaldi berrian kontuan hartzeko asmoarekin.
- Interes-taldeetako eragileekiko harremana sendotzea eta **lankidetzarako baldintzak finkatzea, modu iraunkorrean elkarlanean** aritu ahal izateko aurrerantzean ere.



3. Prozesuaren urratsak

Hausnarketa egiteko, **barne- eta kanpo-analisiak egiteko bideak** jarri ditugu martxan.

3.1. Barne-analisia

Barne-analisia egiteko honako bideak erabili ditugu:

- **Azterketa dokumentala.** Lehen fasean, aurreko legegintzaldiarekin lotutako plangintzen, kudeaketa-planen, ebaluazioen, memorien eta antzeko dokumentuen bilduma egin dugu. Horiek aztertu ditugu eta horietatik guztietatik, legegintzaldiaren inguruko ondorioak atera ditugu. Bilketa egiteko Euskara Zuzendaritza Nagusiaren lankidetzak izan dugu. Baina, gogoetarako abiapuntu nagusia aurreko Plan estrategikoaren txostena (helburuen zehaztapena eta ekintza-fitxak) eta segimendurako tresna izan dira. Izan ere, dokumentu horietan biltzen dira gaur egungo egoera islatzen duten ekimen guztiak eta betetze-maila zehatzak. Txosten horiek hainbat datu ematen dituzte, besteak beste, gaur egun ekintzen garapena nola dagoen eta 5 urteotan zer egin duen Euskara Zuzendaritza Nagusiak.
- **Aurrez aurreko barne-elkarrizketak.** Barne-analisan sakontzeko, Euskara Zuzendaritza Nagusiko Zerbitzuburuari eta Zuzendariari egin dizkiegu elkarrizketak. Beraiek dira orain arte egin denaren eta egin nahi denaren inguruko informazio gehien dutenak, baita ikuspegi kritikoena eta zorrotziena izan dezaketenak ere eta beraz, beraien ikuspegia oso baliagarria izan zaigu orain arte egindakoaren azterketa egiteko, zein aurrera begirako erronkak zein izan daitezkeen identifikatzeko.

INTERES-TALDEAK	ERAGILEAK	Elkarrizketatuak
→ Gipuzkoako Foru Aldundia	→ Euskara Zuzendaritza Nagusia	→ Zuzendaria → Zerbitzuburua

Elkarrizketa egiteko, aurretiaz landu eta Euskara Zuzendaritza Nagusiarekin adostutako **galdetegi erdi-egituratua** erabili dugu. Alegia, aurretiaz landu eta prestatutako galderak erabili ditugu, diskurtsoa modu logiko eta koherentean egiten lagundu dutenak, baina aldi berean, galdera horiek nahikoa irekiak izan dira, batetik, elkarrizketatuak nahi izan dituen alderdiak aipatzeko aukera izan zezan eta, bestetik, elementu berriak txertatu ahal izateko.

Elkarrizketek, batez beste, ordubete iraun dute.

- **Barne-bilerak.** Barne-hausnarketa edo -analisiaren elementu garrantzitsua izan dira Euskara Zuzendaritza Nagusia osatzen duten kideekin egindako bilerak ere. Horretarako, **Hausnarketa Estrategikoaren Lantaldea (HEL)** osatu da eta Euskara Zuzendaritza Nagusiko arduradunek erabaki dute lantalde honen osaera. Ordezkaritza tekniko zein politikoak egon dira bertan eta lantaldea operatiboa izan da. Euskararen zeharkakotasuna kontuan hartuta, Kabineteko bi kidek ere parte hartu dute bileraren batean. Lantaldeak, **5 bilera** egin ditu, prozesuak iraun duen bitartean.



HAUSNARKETA ESTRATEGIKOAREN LANTALDEA	
PARTAIDEAK	ARDURA
Zigor Etxeburua	Euskara Zuzendaritza Nagusiaren Zuzendaria
Gotzon Egia	Euskara Zuzendaritza Nagusiaren Zerbitziburua
Joseba Erkizia	Itzulpen Ataleko burua
Joxean Amundarain	Hizkuntza Normalizazio Programetako atal-burua
Maria Luisa Etxeberria	Itzultzailea
Izaro Ugalde	Hizkuntza Normalizatazalea
Iñaki Errazkin	Kabineteko burua
Arantza Ruiz de Larrinaga	Partaidetzarako zuzendaria
BILERA	EGINDAKOA
1	2008-2011 epealdiko plangintza estrategikoaren balorazioa egitea eta egungo egoeraren AMIA azterketa egitea.
2	2011-2015 epealdirako zeregin nagusiak identifikatzea.
3	2011-2015 epealdirako Plan Estrategikoa lantzea: helburu estrategikoak eta ekintzak zehaztea.
4	Egin diren ekarpenak kontuan hartuta, aurreko hiru gaiekin lotuta behar diren egokitzapenak egitea.
5	Helburuen artean lehentasunak ezartzea, adierazleak lantzea eta hurrengo urratsak zehaztea.

3. 2. Kanpo-analisia

Helburuen atalean jasota dagoen bezala, ekimen honen zeharkako helburuen artean ere bazen, Euskara Zuzendaritza Nagusiak aurrez identifikatuta dituen **interes-taldeetako eragileek parte-hartzea eta horien ekarpenak jasotzea**; baita horiekiko harremana sendotzea eta lankidetzarako baldintzak finkatzea ere, aurrerantzean modu iraunkorrean elkarlanean aritu ahal izateko.

Hori horrela, ezinbestekoa iruditzen zitzaigun, eraiki nahi den horretan hasieratik kanpo-analisia deitzen den hori txertatzea, hau da, kanpoko eragileen iritzi, ekarpenak eta ikuspegiak txertatzea.

Kanpo-analisia edo –hausnarketa egiteko bideak honakoak izan dira:

- **Aurrez aurreko elkarrizketak.** Barne-eragileen iritziak jasotzea oso garrantzitsua iruditzen zitzaigun, baina baita Euskara Zuzendaritza Nagusitik kanpoko eragileen ekarpenak biltzea ere. Zehazki, 4 interes-taldeetako 18 eragilerengana jo dugu eta guztiei egin diegu elkarrizketa. Honakoak izan dira eragileak:



INTERES-TALDEAK	ERAGILEAK	HARREMANAK	Elk.-kop.
Hornitzaileak	<ul style="list-style-type: none"> → EMUN → TISA → Iametza → Ilazki 	<ul style="list-style-type: none"> → Idoia Illarramendi → Eva Mendiola → Joxe Mari Irazusta → Nere Iburguren 	4
Udalak/ arnasguneak	<ul style="list-style-type: none"> → UEMA → Donostia → Irun → Eibar → Errenteria → IMH → Garapen agentziak 	<ul style="list-style-type: none"> → Aizbea Renteria → Edurne Otamendi → David Izaga → Junkal Txurruka → Joxe Mari Jauregi eta Junkal Mintegia → Edurne Bilbao → Ainara Egiluz 	7
Zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> → SOS Arrazakeria → Soziolinguistika klusterra → IZFE → Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua → Lurraldebus → San Telmo Museoa 	<ul style="list-style-type: none"> → Anaitze Agirre → Ibon Usurralde → Javier Gómez → Paul Bilbao → Xabier Lertxundi → Susana Soto 	6
GFA	<ul style="list-style-type: none"> → Gizarte politika 	<ul style="list-style-type: none"> → Maribel Benito 	1
GUZTIRA			18

Horiei guztiei elkarrizketa egiteko, kasu honetan ere, aurretiaz landu eta Euskara Zuzendaritza Nagusiarekin adostutako **galdetegi erdi-egituratua** erabili dugu eta elkarrizketak ordubete ingurukoak izan dira. Egindako galderak honakoen ingurukoak izan dira:

- **2008-2011 epealdiko plangintza estrategikoaren balorazioa:** izan dituen indar-gune, hobetu beharrekoak, zer lortu da, zer geratu da bete gabe...
 - **Egungo egoeraren diagnostikoa:** AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indar-guneak eta aukerak) azterketa egitea.
 - Dagokion sektorean izan duen eragina.
 - Zein liratekeen Zuzendaritzaren funtzio nagusiak
 - **Etorkizuneko erronkak eta zeregin nagusiak:** Zein litzatekeen EZNren hurrengo urteetako helburu nagusia.
 - Zer iritzi dagoen diru-laguntzen politikari buruz.
 - Zer iritzi dagoen arautzearen inguruan.
 - Lankidetzak aukerarik eta beharrik ikusten den.
- **Galdetegi idatzia.** Behin ildo estrategikoak landuta, Euskara Zuzendaritza Nagusiak berak "Interes taldeen definizioa" izenpean identifikatzen zituen 5 interes-taldeen 65 eragileengana jo dugu idatzizko galdetegi bidez eta horien ekarpenak ere idatziz jaso ditugu. Tartean izan dira hasieran elkarrizketatu ditugun eragileak ere, baita beraiengana zuzenean jo gabe, web orriaren bidez, galdetegia erantzun duenik ere.



Hona hemen **eragile horiek**. Arroxa kolorea dutenak galdetegia erantzun zutenak dira:

ERAGILEAK	HARREMANAK
→ Ogasuna	→ Mikel Azkarate
→ Emun	→ Idoia Illarramendi
→ Ilazki	→ Nere Ibareguren
→ Tisa	→ Eva Mendiola
→ Iametzta	→ Joxe Mari Irazusta
→ Usurbilgo Udala	→ Alaitz Aizpurua
→ Ordiziako Udala	→ Aitzol Azpiroz
→ Hernaniko Udala	→ Malores Etxeberria
→ Azpeitiko Udala	→ Patxi Saez
→ Billabonako Udala	→ Maite Arregi
→ Debako Udala	→ Amaia Zinkunegi
→ Eskoriatzako Udala	→ Mari Carmen Arrieta
→ Oresako Udala	→ Eneko Maioz
→ Kontsumitzaileen Elkarteak	→ Kontsumitzaileen Elkarteak
→ Ikaslan	→ Leontxo Valverde
→ EHNE	→ Begona Aristi
→ CCOO	→ Jesus Uzkudun
→ Helduak Elkarteak	→ Benedicto Burgos
→ Goiena Komunikazio Taldea	→ Iban Arantzabal
→ EKT	→ Joan Mari Larrarte
→ Topagunea	→ Jasone Mendizabal
→ Kutxabank	→ Imanol Miner
→ Euskal Editoreen Elkarteak	→ Jorge Gimenez
→ Errealak	→ Begona Larzabal
→ AEK	→ Aurkene Urrusolo
→ Banaizbagara	→ Petra Elser
→ UEMA	→ Aizbea Renteria
→ Donostia	→ Edurne Otamendi
→ Irun	→ David Izaga
→ Eibar	→ Junkal Txurruka
→ Errenteria	→ Jose Mari Jauregi
→ IMH	→ Edurne Bilbao
→ Garapen agentziak	→ Ainara Egiluz
→ SOS Arrazakeria	→ Anaitze Agirre
→ Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua	→ Paul Bilbao
→ Soziolinguistika Klusterra	→ Ibon Usarralde



ERAGILEAK	HARREMANAK
→ IZFE	→ Javier Gomez
→ Lurraldebus	→ Xabier Lertxundi
→ STM	→ Susana Soto
→ Anonimoak	→ 2
→ GUZTIRA	→ 41

Elkarrizketen kasuan bezala, galdetegi idatzien bidez, gure xedea honako informazioa biltzea izan da :

- Azken legegintzaldian egindako lanaren eta emaitzen inguruan eta beraz, ebaluazioa egiteko baliagarria izan zaiguna.
- Egungo egoeraren inguruan, eta beraz, diagnostikoa osatzeko baliagarria izan zaiguna.
- Eta, aurrera begirakoa ere, ildo estrategikoak finkatzeko garaian baliagarria izan zaiguna.

Guztira, 38 galdetegi bidali ditugu, aurretik elkarrizketatutakoei bidalitakoak barne. Bidalitako guztien artetik, 16k erantzun dute. Erantzun horietatik 4, aurretik elkarrizketatuek bidali dituzte. Bidalitako horiez gain, web orri bidez galdetegiaren berri izan duten beste hiru lagunek ere erantzun dute; 2 anonimo eta izendun bat. Guztira beraz, 19 erantzun jaso ditugu eta 9 izan dira, elkarrizketatuez aparte, galdetegia erantzun ez dutenak.

3. 3. Bildutako informazioaren xedea

Bildutako informazioa hiru xedetarako baliatu da eta xede horietako bakoitzari lotutako informazioa modu egituratuan bildu dugu ondorengo orrialdeetan.

- 2008-2011 epealdiko plangintza estrategikoaren balorazioa
- Egungo egoeraren diagnostikoa
- 2011-2015 epealdirako Plan Estrategikoa: helburu estrategikoak eta ekintzak

Ikus dezagun baina, **zer informazio- eta datu-iturri baliatu den xede bakoitzerako:**

XEDEA	INFORMAZIO- ETA DATU-ITURRIAK
2008-2011 epealdiko plangintza estrategikoaren balorazioa egitea	<ul style="list-style-type: none"> → Informazio- eta datu-bilketa dokumentala → Barne-elkarrizketak (2) → Kanpo-elkarrizketak (18) → Hausnarketa Estrategikoaren Lantaldearen bilera (lehenengoa) → Idatzizko galdetegia eragileei
Egungo egoeraren diagnostikoa egitea	<ul style="list-style-type: none"> → Barne-elkarrizketak (2) → Kanpo-elkarrizketak (18) → Hausnarketa Estrategikoaren Lantaldearen bilera (lehenengoa) → Idatzizko galdetegia eragileei → 2008-2011 epealdiko plangintza estrategikoaren balorazioa
2011-2015 epealdirako Plan Estrategikoa lantzea: helburu	<ul style="list-style-type: none"> → Barne-elkarrizketak (2)



XEDEA	INFORMAZIO- ETA DATU-ITURRIAK
estrategikoak eta ekintzak zehaztea	<ul style="list-style-type: none">➔ Kanpo-elkarrizketak (18)➔ Hausnarketa Estrategikoaren Lantaldearen bilera (bigarrena+ hirugarrena + laugarrena + bostgarrena)➔ Idatzizko galdetegia eragileei➔ 2008-2011 epealdiko plangintza estrategikoaren balorazioa➔ Egungo egoeraren diagnostikoa



4. 2008-2011 Plan Estrategikoaren balorazioa

4.1. Sarrera

Egindako analisiaren abiapuntua izan da 2008-2011 epealdirako landutako **Plan estrategikoaren edukiak eta emaitzak aztertzea**. Ebaluazio horretan, aztertu dira:

- 2008-2011 landutako plangintzak izan dituen **emaitzak**: batetik, zenbateraino garatu diren plangintzan jasotakoak, plangintzaren betetze-maila alegia; eta bestetik, garatu diren ekimen horien inpaktua edo eragina. Zenbateraino balio izan duten ekintza eta ekimen horien, xede zuten helburua asetzeko.
- Plangintzaren betetze-maila eta aurrera eraman diren ekimenek izan duten emaitza edo **inpaktua** kontuan hartuta, 2008-2011 epealdirako jasotako xede, ikuspegi eta balioen egokitasuna aztertuko dugu, baita horien garapenerako, proposatutako estrategia, helburu eta ekintzena ere.
- Azkenik, plangintzaren garapenerako izan ditugun **egiturak eta baliabideak** eta horien antolaketa ere ebaluatu ditugu.

Ebaluazioaren helburua izan da ondorioak landu eta aurrera begirako ikasgaiak ateratzea, hain zuzen, plangintzaldi berrian kontuan hartzekoak zein diren garbi edukitzea.





4.2. Barne-eragileen balorazioa

2008-2011 plangintzaldiaren balorazioa egiteko honako galderak egin genizkien Euskara Zuzendaritza Nagusiko bi elkarrizketatuei:

- Zein izan dira planaren emaitzak/lorpenak? Zer alderdi positibo aipatuko zenituzke? Zertan eragin dizue modu positiboan?
- Izan al du eraginik Gipuzkoan euskararen egoera sustatzeko ahaleginean? Eta Aldundi barruan?
- Zein izan dira zailtasunak/arazoak?
- Zer geratu da bete gabe? Zergatik?



2008-2011 planaren emaitzak eta lorpenak	Zailtasunak eta hobetu beharrekoak
<ul style="list-style-type: none">• Plana diseinatzeko prozesua bera argigarria izan zen, izan ere konturatu ginen Diputazioko gainerakoek nola ikusten gintuzten eta zenbait alorretan ez ginela ondo ari. Garrantzitsua izan zen, halaber, konturatzeko noizean behin komeni dela pixka bat geratzea eta hausnartzea.• Lortu dugu Diputazioan leku zentralagoa izatea.• Bikain ziurtagiriaren ebaluazio-saioetan Diputazio guztiak parte hartu zuen. Langileek euskararen ardura bere egin du eta hori Plan Estrategikoaren lorpena izan da.• Langileen ikuspegia ere aldatu egin da; testuinguru baten barrua lan egiten dutela konturatu dira, makineria orokor baten barruan daudela.• Gaur egungo egoera egokia da. Hobetzeko arloak badaude ere, arkitektura legal egokia dago GFAn bide ematen duena Aldundi euskalduna egiteko. Tresna horiek garatuta emaitza oso onak lortzeko bidea badago.• EZNko langileen bokazioa eta gogoia normalizazioaren bila.• GFAn gainerako langileen ezagutzari dagokionez, Aldundia nahiko euskalduna da eta euskara zerbitzu-hizkuntza izatera iristeko traba handirik ez dago.	<ul style="list-style-type: none">• Erronka nagusiak bete dira, baina Diputazioan leku zentralagoa lortu dugun arren, aliatuak izan beharko luketen zenbait ataletatik urruti gaude oraindik; funtzio publikotik, adibidez. Hurbildu egin behar dugu etxe barruko oso puntu inportantea delako.• Bestalde, Plan estrategikoaren ardura arduradunengan delegatzen da. Landutako komunikazio-plana gutxi bete da.• Bete gabe geratu dira kanpoko eragileen inplikazioa behar zuten zenbait gauza.• Diru-laguntzen gaia zaila da. Arazo kronikoak daude eta irtenbide zaila duten, orain krisiarekin zailagoa. Berregituratzea oso zaila da eta Plan estrategikoarekin ez dugu lortu gai horri buelta ematea.• Hizkuntza Ofizialaren Erabilera arautzen duen dekretuaren aplikazio gorabeheratsua departamendu desberdinetan.• EZNko langileen jarrera ona da, baina taldea nahikoa ote den zalantza dago.

4.3. Kanpo-eragileen balorazioa

2008-2011 plangintzaldiaren balorazioa egiteko honako galderak egin genizkien eragileei **elkarrizketetan**:

- Zer harreman du zuen erakundeak EZNrekin?
- Ezagutzen al duzu EZNren Plan Estrategikoa (2008-2011)? Parte hartu al zenuen haren diseinuan? Kontuan izan al zen zure iritzia?



Gipuzkoako Foru Aldundia

- Ezagutuz gero, zein izan dira planaren emaitzak/lorpenak? Zer alderdi positibo aipatuko zenituzke? Zertan eragin dizue modu positiboan?
- Oro har, izan al du eraginik zure sektorean edo alorrean? Besteren batean? Gipuzkoan euskararen egoera sustatzeko ahaleginean?
- Zein izan dira zailtasunak/arazoak?
- Zer geratu da bete gabe? Zergatik?

Idatzizko galdetegian, antzeko galderak egin ziren 2008-2011 epealdiaren balorazioa egiteko:

- Zer harreman du zuen erakundeak EZNrekin?
- Zer iritzi duzu diru-laguntzen politikari buruz?
- Hizkuntzen inguruko arautzeari buruz, zer iritzi duzu? zer iruditzen zaizu orain arte egindako bidea? beste bideren bat hartuko zenuke?
- Zer iruditzen zaizu Aldundiak zerbitzuak eta enpresak kontratatzeke baldintzen artean euskararen ziurtagiriren bat eskatzea?

2008-2011 planaren emaitzak eta lorpenak	Hobetu beharrekoak
<ul style="list-style-type: none">• Diru-laguntzak emateko prozesua erraztu egin da.• Kanpotik malgutasun handiagoa sumatu dugu eta UDALekineko malgutasuna eta gauzak proposatzeko beste bideak. Harremanak dinamikoagoak dira orain egin den ahaleginari esker.• Azken urteetan UDALekin egitasmoak oso ondo funtzionatu du teknikariontzat. Formazio-saioak eman dizkigute eta oso onak izan dira praktika-komunitateak ere. Kontua da praktika-komunitate horiek zenbateraino jartzen ditugun martxan gure udaletan, baliabide faltagatik batez ere, egitasmo horiek burutu gabe geratzen baitira.• Gure balorazioa oso ona da. Guk bagenituen gure lan-lerroak markatuta, baina GFAtik lerro horiek azpimarratu egin dizkigute. Arauak eta gomendioak egin dizkigute.• Udalekin aurreko egitasmoa izanda ere, Plan Estrategiko horretan mantendu izana emaitza positiboa da, udaletako teknikarientzako koordinazio-egitasmoa baita.• Euskararen zehar-lerrotasunena lan txukuna egin du EZNK, GFAko beste departamenduek euskaraz lan egin dezaten.	<ul style="list-style-type: none">• Arau foralaren eragina diru-laguntzetan. Asko zaildu da diru-laguntzak eskatzeko prozesua.• Praktika-komunitateei dagokienez, merkataritza eta jarrera kontuetan egin dira praktika-komunitateak eta gustatuko litzaiguke parte-hartzea, baina ez daukagu denborarik. Herri txikietan aukera handiagoa dute parte hartzeko, baina guk ez daukagu denborarik.• Arazoren bat izan denean, , gehiago izan dira Udalek eragindakoak. Batzuetan alkateak harremana euskaraz izateko hitzarmena sinatzen du eta ez die langileei jakinarazten. Foru Aldunditik dokumentazioa euskaraz bidali eta Udalak ele bietan bidaltzeko eskatu. Baina arazoa ez da Foru Aldundiarena Udalarena baizik.



2008-2011 planaren emaitzak eta lorpenak	Hobetu beharrekoak
<ul style="list-style-type: none">• Planaren ondorioz, GFA barruan ebaluazioa zehatzago egiten hasi ginen, EZNko zuzendariarekin harremana handitu egin zen eta bilera formalagoak egiten hasi ginen; bilerak sistematizatu eta ordezkariak izendatu ziren.• Planaren eraginez, Euskara Zuzendaritzaren eta euskara-irakasleen arteko komunikazioa eta koordinazioa nabarmen hobetu da.• Beste erakunde batzuekin konparatuz, erabat aurretik doaz. Esate baterako, Foru Aldundiarekin harremanak erabat euskaraz nahi zuten udalek aukera izan dute horretarako eta inizatiba Foru Aldunditik etorri da.	



4.4. Hausnarketa Estrategikoaren lantaldearen balorazioa

ALDERDI POSITIBOAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none">• Ondo egiten ari garen gauzak agerian jartzeko aukera eman digu. Bide onetik goazela ikusteko.• Erreferente izan ginen gure departamentuan (euskara vs kultura) eta Aldundiaren barruan.	<ul style="list-style-type: none">• Gure egituraren ahultasunak konponbidean jartzeko gauza ez gara izan.
<ul style="list-style-type: none">• Zuzendaritzaren egoera aztertzeko eta barrura nahiz kanpora begira nola hobetu dezakegun hausnartzeko aukera eman digu, gure eguneroko lanean tartetxo bat eginda.• Eguneroko lanaren gurpiletik ateratzeko aukera izan da, gure lanaz hausnar egiteko une bakarra.• Eginkizunak ordenatu eta helburu argi batzuen mende jartzeko balio izan digu.	<ul style="list-style-type: none">• Lankide askok kanpoko kontu bat bezala ikusi zuten.• Ez dugu lortu Zerbitzuko lankideen inplikazioa. Plan estrategikoaren onurak erakusten saiatu behar dugu.• Lankideen artean hausnarketa estrategikoaren beharra partekatzea asko kosta zaigu.
<ul style="list-style-type: none">• Plana izatea, egina egotea, eta abian izatea gauza ona da.• Erakutsi digu: “nola nahi genuke izan 4 urte barru?”• Gure zuzendaritzaren lanaren lerro nagusiak esplizitatu zituen.	<ul style="list-style-type: none">• Helburu batzuk anbiziosoegiak ziren.• Jarri genituen helburuetako batzuk lortzeko ez dugu behar genuen laguntza edo lankidetzaz guztia lortu (Aldundiko beste zerbitzu, zuzendaritza edo departamentuetatik).
<ul style="list-style-type: none">• Gure “bazkideengana” hurbiltzeko bidea eman digu.• Definizio garaian, harremanetan jarri gintuen Gipuzkoako euskalgintzaren zati handi batekin.	<ul style="list-style-type: none">• Planaren gizarteratze (kanpoan) maila apala da. Hizkuntza politika planaren arabera zehazten bada, beharrezkoa da planaren diseinuan parte izan direnek beren garapenaren berri izan eta hobekuntzarako ekarpenak (foroa) egitea.



5. Egungo egoeraren diagnostikoa

5.1. Sarrera

Egungo egoeraren analisisa egitea hausnarketa-prozesuaren hurrengo urratsa izan da. Kasu honetan ere, informazio- eta datu-iturri berdinetera jo dugu: barne-elkarrizketak, kanpo-elkarrizketak, Hausnarketa Estrategikoaren Lantaldea eta 2008-2011 epealdiko plangintza estrategikoaren balorazioa.

Aurreko atalean egindako lanetik ateratako ondorioek, egungo errealitatea ulertzen eta interpretatzen lagundu digute. Egungo egoeraren analisisa egiteko egungo ahuleziak, mehatxuak, indar-guneak eta aukerak aztertu ditugu.

5.2. Barne-eragileen AMIA

INDARGUNEAK

- GFAREN legedia Aldundia euskalduntzeko tresna egokia.
- Euskara kabinetean kokatu izana.
- Gobernuaren asmoak; barrura zein kanpora begira euskarari eman nahi zaion estatusa.
- Gobernua euskalduna izatea,
- EZNko lankideen gogoia eta inplikazioa.
- Gure lankideak, indar-gune handiena. Beste guztia horrekin lotuta dago.
- Leku zentralagoa lortu dugu GFAN eta ez da erabaki politikoaren ondorioa izan. Gobernu politikoa euskaltzalea izan ala ez hain euskaltzalea, gure posizioa gutxi gora behera neurri berdinean egongo litzateke gaur egun. Faktore hori ez da erabakitzaile. EZNko lankideek Aldundiko lankideekin egiten dugu lan eta lan horren izaera, kalitatea edo nolokotasuna da.
- Momentu honetan Aldundian ez daukagu arazorik euskara jakitearekin edo ez jakitearekin. Fase hori bukatuta dago. Badago jendea euskara ez dakiena baina

AUKERAK (EZNTik kanpora)

- Herritarrek, euskaltzale aktibo, epel zein euskararen kontrakoek, espero dute Gobernu honek euskarari bultzada esanguratsua ematea; Aldundiaren zerbitzu-hizkuntza bihurtzea, besteak beste.
- Aldundiko kudeaketa publikoan gure zentralitatea hobeto markatzeko aukera daukagu.
- Gure lantaldearen kalitatea, prestakuntza hobetzeko.
- Lankideen prestakuntza hobetzea
- Euskaraz sortzeko bidea ugaritzea
- GFAREN zerbitzuak euskaraz bermatzea
- GFAko langile gehienen jarrera positiboa



INDARGUNEAK

jubilatzeaz dagoen jendea da eta horrekin batera, eginkizun oso marjinaletan daude.

- Normalizazioa
- Plan estrategikoa
- Azken 4 urtetan lortutakoa
- Pertsonak.
- Itzulpengintza
- Trebakuntza
- Udalekin eta gizarte-eragileekin lotura estua
- Euskara=balio ona bat
- Foru Legedia

AUKERAK (EZNtik kanpora)

- Gobernu Taldearen bultzada eta eragina
- Gizartearen euskararekiko aldeketasuna
- GFAk asko eragin dezake bere ohiko jardunean euskara txertatuta
- Espektatibak: euskaltzaleenak eta ez hain euskaltzaleenak, gizartean eta baita GFAn ere.
- Langile berriak (GFA) euskaraz jarduteko prestatuta eta prestuagoa egongo dira.
- Kontestu politiko honetan. EZN/GFAren ekimenak “EL Mundoren” begi-puntuari egotea.





MEHATXUAK

- Sortutako espektatibak ez betetzea.
- Egoera ekonomikoa.
- Alderdi espainolek euskara lehia politikorako erabiltzea.
- Mehatxu sozialak: kalean, gizartean, Gipuzkoan eta Euskal Herrian euskarak duen prestijioaren adinakoa dauka Aldundian ere. Nahiz eta euskararen erabilerak leku zentralagoa izan kudeaketa publiko orokorrean, euskararen balio soziala da kalean ikusten duguna. Eta Aldundiaren ere erresistentziak badaude. Hizkuntza-aldaketak, hizkuntza-portaerak eta jokabideak batez ere aldatzeko prozesuak oso arnas luzekoak dira. Urrutira begiratzeko ahalmena behar da, presa handirekin bizi gara eta hizkuntza-prozesuetan ezin da presa eduki.

AHULEZIAK

- Legediaren aplikazioa erabatekoa ez izatea.
- Lankideon prestakuntza. Ez dakizkigun gauza asko jakin beharko genituzke. Gure lan-prozesuak, gure lan-tresnak, gure metodoa hobetu behar dugu. Orain arte garrantzi gutxi eman diogu, aurreko prozesuaren bukaeran ohartu gara Prestakuntza-plana oso garrantzitsua dela. Bestela, trebakuntza geratzen da pertsona bakoitzaren borondate pertsonalaren menpe.
- Administrazio publikoa garen heinean, dena oso mantso doa. Gauzarik txikiena egiteko ere prozesua luzea izaten da, diru-laguntzak, kontratazioak... Faktore horrek gure lan-prozedurak moteltzen ditu.
- Gure baliabide eskasak. Aldundian egin den lanpostuen analisi-funtzionalaren arabera, lanpostu bat falta dugu normalkuntzaren arloan eta beste bat itzulpengintzan. Gure egitura laburregia da egiten dugun lanerako. Behin behineko bi lanpostu daukagu egoera horri momentuz aurre egiteko baina bi lanpostu horiek ez dira finkoak eta arriskuan egon daitezke. Ahulezi estruktural oso gogorra daukagu.
- EZN kabineteen jarri da (BIKAIN!), baina beste gaien garrantziak-edo gu "bakarrik uztea.
- EZNren giza baliabideen eskasia (krisi ekonomikoarekin lotuta dago)
- Barne-komunikazioan (EZNN bertan eta GFAn) eraginkortasun gutxi
- Euskararen zeharkakotasuna apustutzat hartu arren, GFaren kulturaren oso errotuta dago departamentuka aritzea.
- Hasierako asmo handiek indarra galtzea (Gobernua, zuzendaria, bildu)
- EZNren funtzioa zein den: euskararen eskumena EJrena da, ez gurea. Udalak dira herritarrengandik gertukoena, ez gu.
- GFAn langileen euskalduntzerako programan (ALET) kontratazioaren ahulezia, bi lanpostu horiek ez direlako finkoak eta arriskuan egon daitezkeelako.



4.3. Kanpo-eragileen AMIA

INDAR-GUNEAK

- **Euskara Zuzendaritzan Iristerrazak** dira eta **gardenak**.
- **Zuzendari berria**.
- **Pertsonak**. Kapazitate handiko pertsonak daude; ezagutzan, harremanetan eta hurbiltasunean gaitasun handikoak.
- Beraiekin **harremana oso gertukoa** da eta laguntza eskatzen diegunean prestutasuna dute.
- **Norabidea nahiko ondo finkatuta dauka** EZNk. Ez bakarrik barrura begira, baizik eta kanpora begira bete beharreko funtzioei begira ere. Arau egokiak, diru-laguntzen lerro egokiak (kopuruak aparte).
- **Kulturatik atera izana** eta Diputatu Nagusiaren kabinetean kokatu izana. Horrek aukera ematen du zeharkakotasunari leku egiteko eta seguru asko, diru-laguntza batzuk hobeto bideratzeko ere (kulturatik bideratzeko...).

AUKERAK (EZNTik kanpora)

- **Lau urte hauek aprobeztatzea zenbait erabaki eta lan egiteko**. Izan ere, beste zenbait erabaki besteren batek hartu izan balitu, behar bada, istiluak sortuko lirateke; baina Gobernu honek hartzea normalagotzat har daiteke.
- **Zuzendari berria**. Aldaketa nabaritu da eta gauza batzuk aldatzen hasi dira.
- **Krisi ekonomikoa**. Elkarlanera bultzatzen gaitu, beste agenteekin proiektu gehiago landu.
- **krisia** mehatxua bada, baina baita aldeko faktorea ere. Izan ere, enpresek lana behar dute eta horrelako erabakiek enpresak euskara beren lanean integratzen hastea ekarriko du. Krisia gure alde jarri behar dugu. Gero lankidetzak eta bideratu. Arlo sozioekonomikoan eragiteko aukera handia dago une honetan, kontratazioetan zenbait baldintza eskatuta.
- **Inbertsio gehiago I+G+Bn**: Ikertzen ez badugu, ez dugu asmatuko. Orain arteko bideez gain, beste batzuk jorratu behar ditugu. Ausardia behar dugu; konplexurik gabe lan egin behar dugu. Eta hasi behar dugu hemendik kanpora lan egiten; komunitate internazionalak ikus dezan zer egiten dugu: eta horrela lortuko gure lana errekonozitzea eta harreman-sareak egitea.
- **Medioetan ateratzea**. Orain artean egindakoaren termometroa ere bada, behin bakarrik atera baita Aldundia euskararen alorrari dagokionez, “zerrenda” famatuaren gaiarekin.
- **Baldintza sozialak** onak dira, aldekoak dira Gipuzkoan.
- **Hizkuntza Politika ausartak** abian jartzeko asmoa.
- **Aldundi barruan euskararen ezagutza**.
- **Politikarien artean euskararen ezagutza**.
- Egiturari dagokionez, **euskara kulturatik bereizi eta kabinetean sartzea** (baina orain praktikara eramanez behar da).



MEHATXUAK

- **Krisi ekonomikoa**, baliabideak murriztu dira.
- Krisiak irauten badu, eta iraungo du, gero eta zailagoa izango da **gure proiektuak saltzea**.

AHULEZIAK

- Aldundia izanda, **lidergo falta**; indar gehiago, presentzia.
- EZNk harreman gutxiegi gainerako Aldundiekin eta HPSrekin. EZNri dagokio bere lurraldeko Hizkuntza Politika definitzea, baina zenbait erabaki gainerakoak dira. Kolaboraziorako fluxurik ez dago.
- Bildu koalizioa izatea eta sentzibilitate desberdinak egotea. Definitu beharko litzateke nola iritsi eta zer irizpide izan behar diren.
- Dauden aldeko faktoreak izanda (krisia kenduta), aurrera egitea ez badugu lortzen, frustrazio handia izan daiteke. Euskarak ez du hartu oraindik beste gai batzuek hartu duten indarra. Ez dira erabaki ausartak hartu euskararekin. Komunikatiboki ere landu egin behar da gai hori.
- Euskara zeharkako gaia da eta ez dauka lehentasuna. Horregatik, EZNak esango/eskatuko digunaren esperoan egoten gara. Ez dugu iniatiba guk hartzen.
- Komunikazioa: ez genuen aurreko epealdiko plangintza ezagutzen.



6. EUSKARA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ZEREGIN ETA ERRONKA NAGUSIAK

6.1. Barne-eragileen azterketa

ERRONKA NAGUSIAK

- Hizkuntza-aldaketaren prozesuak nondik nora joango diren ikustea, bidea egitea.
- Prozesuan lider izatea, hartu beharreko bidea erakustea.
- Sortutako espektatibak betetzea.
- Euskarak beste estatus soziala hartzea; oraingoa baino askoz ere esanguratsuagoa.
- Administrazioak hizkuntza-eskubideak errespetatzea: 2015erako zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzea.
- Herritarren eskubideak bermatzea.
- Barne-egitura indartzea eta finkatzea.
- Lidergoa lantzea.
- Euskara benetako lan- eta harreman-hizkuntza izatea Diputazioan.
- GFAn euskararen jakintza-maila eskuratzetik, lanean euskararen erabilerara iristea.
- Euskara agenda politikoan sartzea.
- Hizkuntzaren zehar-lerrotasuna, zeharkakotasuna lantzea Aldundian
- Hizkuntzaren dimentsio publikoan eragin.
- Urratsak adostasunez egitea.
- Gipuzkoan euskaraz bizitzera iristeko behar den aldaketa pertsonala, soziala eta politikoa eragitea.
- Euskararen inguruko adostasun-maila sendotzea (Aldundian, BBNetan, gizarteetan).



6.2. Kanpo-eragileen azterketa

EZNren ZEREGIN NAGUSIAK	ETORKIZUNeko ERRONKAK
<ul style="list-style-type: none">• Lider izatea, batez ere elkarlana sustatzeko. Gipuzkoako euskara zerbitzuen elkargunea artikulatu eta lideratzea. Horrela denak norabide berean jarriko ginateke eta ekimen bateratuak garatu. Udal-ordezkariek eta Diputazioak osatuko lukeen egitura iraunkorra nahiko genuke, Aldundiak lideratuko lukeena.• Udal ekin sarea ondo dago, baina formazioa eta informazioarekin lotuta egotea. Euskararen inguruko informazio eta formazioa jasotzen da, baina gero zerbitzu bakoitzak berean segitzen du.• Diru-laguntzen bidetik jarraitzea eta doakotasuna bultzatzea. Azken hori badakigu Zuzendari berriaren helburuetako bat badela, horrela adierazi zigun. Saiatuko dela ikasleei matrikulak ahalik eta kostu gutxien eragitea baina momentu honetako	<ul style="list-style-type: none">• Giza baliabideak eta baliabideak, oro har, hobetu aprobetxatzea giro/egoera ekonomikoa ikusita, gainera.• Teknologia berriei zuku gehiago ateratzea Aldundiak. Seguru asko, egon badaude, baina ez ditugu bere ahalmen osoan baliatzen. Twitter, facebook...gure helburuetarako aprobetxatu beharko genituzke.• Software librea ere sustatu beharko litzateke; izan ere, euskarari aukera gehiago ematen dizkio eta horren kontzientzia zabaldu, zer garrantzi duen edukiak euskaraz elikatzeak (wikipedia...)



EZNren ZEREGIN NAGUSIAK

- baliabideekin ikusiko dugu noraino lortu ahal izango duen.
- Erakunde publikoak ez dira soilik dirua kudeatzen duten erakundeak, baizik eta hizkuntzari dagokionez, honakoak ere egin behar dituzte: **Hizkuntzaren normalizaziorako agente** izatea horretarako:
- Norabidea, estrategiak, hizkuntza-politika definitzea.
- Sarea ehuntzea.
- Lurraldean aplikatu beharreko **politikak eta estrategiak** eta horiek garatzeko proiektuak definitzea.
- **Agenteen arteko sarea osatzen laguntzea**; elkarrekin lan egiteko.
- Gipuzkoatik gaindi **beste Aldundiekin eta HPSrekin** ere harremana lantzea.
- **Lau urte baino perspektiba luzeagoa izatea**. Diru-laguntza politikak, politikak, estrategiak ezin dira lau urtez behin aldatu. Epe luzerako politika adostuak behar ditugu.
- **Barrura begira, zehar-lerrotasuna lantzea**, egiturak euskaldundu eta euskaraz lan egiteko baliabideak bermatzea.
- **Herritarrei begira** haiek **zerbitzu guztiak euskaraz jasotzea** bermatzea.
- **Herrialdeari begira, motor izatea**.

ETORKIZUNENKORRONTAK

- Erakustea **badagoela beste Hizkuntza Politika bat egitea**. Oso garrantzitsua da lidergo pertsonalaz gain, Administrazioaren lidergoa.
- **Erabaki traktoreak hartzea**. Eskumenetan nahiko hanka motz dago Aldundia. Ezin du Euskararen legea aldatu (totema da hizkuntza mailan), baina erabaki traktore batzuk har ditzake. Indar handia egin dezake Aldundi barruan Dekretua garatuta (beste Aldundiekiko hobeto).
- **Gipuzkoan lider izatea**. Gipuzkoa euskaldunaren lider izan behar du. Eta gainera, foro guztietan defendatu behar du hori. Agerian utzi behar du gipuzkoarren hizkuntza-eskubideak ez direla betetzen.
- **Zehar-lerrotasuna lantzea**: nola txertatu euskara Aldundiak eragin dezakeen gainerako arloetan. Nola bermatu euskara azken zuzendaritzara iritsiko dela, kargu politiko guztiengana?
- Lehen erronka da **herritarrei zerbitzua euskaraz bermatzea**.
- Erabaki ausartek babes soziala behar dute; **konplizitatea bilatzea** horrelako erabakiak hartzean. Gizartea prestatu egin behar da hori blindatzeko.



EZNren FUNTZIO NAGUSIAK	HELBURUAK/EKINTZAK
<ul style="list-style-type: none">• Hizkuntza Normalizazioan aitzindaritza hartzea.• GFAREN hizkuntza lidergoa sendotzea.• Euskararen inguruko eragileen sarea ehuntzea• Euskararen alorrean sor daitezkeen ekimenak bultzatzea.• Udalen ardatza izatea normalizazioan. Udalen hizkuntza politikak koordinatzea.• Euskalgintzarekin batera, Hizkuntza Politika egokia bideratzea indarrak bilduz eta gizarte-eragileei protagonismoa emanez.• Hizkuntza Politikaren eragile izatea• Gipuzkoarrak euskaraz bizi ahal izateko baldintzak bermatzea (euskara erabili nahi dutenen hizkuntza-eskubideak errespetatu eta errespetaraztea).• Euskararen erabilera soziala hedatzera bideratutako hizkuntza politika egokia garatzea.• Euskararen aldeko diskurtso politikoa lantzea.• Foru Aldundian euskararen erabilera zabaltzea eta herritarrekiko harremanean hizkuntza-eskubideak bermatzea.• Gipuzkoan euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko tresnak garatzea eta eskaintzea.	<ul style="list-style-type: none">• Egoera soziolinguistikoaren araberrako ildo estrategiko eta lehentasunak markatzea.• Informazioa eta ezagutza eragileen esku jartzea.• Soziolinguistikan ikerketa, garapena, berrikuntza eta ezagutzaren kudeaketa modu estrukturrean sustatu eta finantzatzea.• Gipuzkoan tokian tokiko egoera soziolinguistikoaren araberrako urte anitzeko Plan Estrategikoa eta urte urteko Kudeaketa Planak zehaztea.• Jarraipen sistema ezartzea egindako aurrerapenak neurtzeko.• Gipuzkoako euskal hiztun berriei zuzendutako diskurtso osagarriak lantzea.• Lan-munduan euskararen erabilera bultzatzea.• Jendarteak euskaraz bizi ahal izateko arnasguneak indartzea eta berriak sortzea.



DIRU-LAGUNTZEN POLITIKAREN inguruak

- **Erakundeen artean koordinazioa** antolatzea; erakundeen arteko deialdi eta planak adostea eta bideratzea, oro har, arloa ordenatzea.
- Denek eredu berdina erabiltzea.
- Planteamendua aldatzea. Planteamendua ezin da izan euskalgintzako proiektuen galerei aurre egitea.
- **Diru-laguntzen lerro berezi bat** sortzea proiektu estrategiko eta pilotuentzat, gerora Gipuzkoako beste eskualde eta udalerrietara zabaltzeko.
- Dirua sakabanatu eta bakoitzari pixka bat ematea baino, hobe litzateke proiektu jakin batzuk sustatzea.
- **Zer lagundu ENZtik eta zer Kultura sailetik** hausnartzea. Proiektu batzuk urte anitzekoak dira eta laguntzak urterokoak. Horrek kudeaketa astuna bihurtzen du.
- Diru-laguntzen politika izatea, osagarri industrialak sendotzen laguntzen duena, helburu estrategikoak epe laburreko beharrezan ginetik jartzen dituen.
- Ondo neurtzea diru-laguntzen boluntarismoa eta eraginkortasun-esparruak.

SEKTOREEI DAGOKIENEZ proposatutakoak

- **Itzulpengintzan**, Sektorearen klusterra lortzeko LANGUNEren lana laguntzea eta bultzatzea.
- **Hedabideen sektorean**, sektorearekin batera haren etorkizuna lantzea eta bideak irekitzea aurrera egiteko behar diren inbertsioak ziurta daitezen.
- **Udalei begira**,: proiektuak diruz laguntzea, teknikariei formazioa eskaintzea, udalen arteko lankidetzak sustatzea. Hizkuntza politikan gidari izatea udal guztiak norabide berean jar daitezen eta sinergiak ahalik eta gehien aprobetxatzeko.
- **Garraio-zerbitzuen** sektorean, erabiltzaileen eskubideak bermatzeko hizkuntza-irizpideak definitzen laguntzea.
- **Soziolinguistikaren** arloan, ikerketa, berrikuntza eta garapena modu estrukturalan sustatzea, babestea eta laguntzea.
- **Saltokiak** euskaraz errotulatzera legez behartzea. Euskara eztabaidaren erdigunera eramatea.
- **Euskalduntzeari** dagokionez, euskara ikasteko erraztasunak ematea; doakotasunera heltzeko pausoak ematea.
- Etorkinen kasuan, sektorearen eta beste sektoreen artean loturak sortzen laguntzea (batez ere lan-mundua eta lan-munduen euskalduntzeari dagokiona).



ARAUZEAren inguruak

- **Arau argi eta finkoak izatea**, denek ezagutu eta betetzeko. Nahastea dago, baita erakundeen artean ere. Alderdi juridikoak ere jorratu beharko lirateke.
- Euskara lehenetsuneko hizkuntza izan dadin badago oraindik zer arautu. Edo araututa badago, arau horiek betetzen direla ziurtatzea.
- GFAk **Hizkuntza Irizpideak finkatzea, udalekiko harremanetan eta kontratazio-harreman guztietan.**
- **Araututakoa betetzea** da garrantzitsua une honetan.
- **Hizkuntza Irizpideak jartzea** beharrezkoa da, baina **hiztunaren lan-egoera kontuan hartu** behar da eta euskara gehiago erabiltzeko bidea egiten laguntzea.
- GFAREN barruan EZNren jarduera **hobetu komunikatzeko ahalegina** egitea, jarduera arautzaile soila komunikatzeaz gain, hiztunarekin hobeto konektatzen duen diskurtsoa lantzea.
- GFAk hizkuntza-normalizaziorako lege-arloan eskumenik ez duen arren, interesgarria litzateke **euskaraz lan egiteko dugun babes juridiko eza gainditzeko bidea egitea.**
- **Arlo sozio-ekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko** lan egitea.
- Hizkuntza-arautzeko erabakia hartu dutenei **hobari fiskalak** ezartzea.

ALDUNDIAREN KONTRATAZIOei buruzkoak

- Oro har, beharrekotzat jotzen da **zerbitzuak kontratatzeko hizkuntza-baldintzak jartzea**. Batzuentzat ezinbestekoa, beste batzuentzat egokia...
- Hala ere, zenbait ñabardura ere adierazi dituzte:
 - Ziurtagiriak eskatzea baino egokiagoa litzateke **enpresek euskara-plana abian ote duten baloratzea.**
 - Ziurtagiria ala harremanak euskaraz izatea eskatzea?
- Eskakizun zorrotzak egin aurretik **laguntza-programak abian jartzea.**
- **Kontratazioaren arabera, ziurtagiriaren maila aztertzea**, ez da gauza bera udaleku batean aritzea edo paper-hornitzailea.
- Hasieran **ohartemateak egitea eta azkenean kontratu eteteak** ere ekartzea.
- Kanpokoei baldintzak jarri aurretik, GFA barruko ibilbidea euskaraz izan daitekeen aztertzea+.
- Kontu handiz egin beharrezkoa gogoeta egitea zerbitzu eta enpresak egin beharrezkoa euskaraz egin behar ote duen.



7. 2011-2015 epealdirako Plan Estrategikoa

Aurreko plangintzaldian egindako lana ebaluatuta eta egungo diagnostikoa eginda, bateko ikasgaiekin eta besteko ondorioekin, aurrera begira jarri eta hurrengo lau urtetarako Plan Estrategikoa definitu dugu: Zeintzuk izango dira Euskara Zuzendaritza Nagusiaren **erronka edo ildo estrategiko nagusiak**? Zein izango dira erronka edo ildo estrategiko horiekin lotuta, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren datozen lau urteetarako **helburu nagusiak**?

PLAN ESTRATEGIKOAREN HELBURU NAGUSIA

GFAko departamentuei hizkuntza-zerbitzua ematea; hizkuntzaren dimentsio publikoan eragitea eta herritarren eskubideak bermatzea.

IKUSPEGI OROKORRA

HELBURU ESTRATEGIKOAK:

1. Hizkuntza Politika eraginkor bat garatzea

BARNE -IKUSPEGIA

HELBURU ESTRATEGIKOAK:

2. Hizkuntza-kudeaketa zehar-lerro bihurtzea
3. Euskara benetako lan- eta harreman-hizkuntza izatea

KANPO -IKUSPEGIA

HELBURU ESTRATEGIKOAK:

